

ZIGORRA, KARTZELATIK GIMNASIORA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Londres, 1818. Sir William Cubitt britainiar ingeniariak aparatu bat asmatu zuen, eskailera zirkular jarrai moduko bat, presoak lekualdatu gabe ibili eta ibili zitezen.

Cubitt beste hainbat lanengatik egin zen ezagun, garaiko ingeniariaren obra nagusietan parte hartu baitzuen. Horri esker lortu zuen *sir* titulua eta Ingeniari Zibilen Institutuko presidente izatea, besteak beste. Kanalak, dikeak, trenbideak... eraikitzen lagundu zuen eta Londresko Hyde Parkeko Crystal Palace ezagunaren eraikuntzan bera izan zen ingeniari buru. Kartzelarako asmatutako gailu hark espero baino bide luzeagoa egin zuen, gaur egun gimnasioetan dauden makina askoren aitzindari izan baitzen.

Tramankulua Brixtongo kartzelan probatu zuten lehenengoz. Dozenaka preso horzdun arrabol erraldoira igotzen ziren batera eta, hankei eraginez, zilindroa biratzen hasi eta sistema martxan jartzen zen. Ingelesezt *treadmill* edo ibiltzeko errota deitu zioten Cubitten asmakizunari. Eta gaur egun ere berdin esaten diete gimnasiotan egon ohi diren oinez edo lasterka ibiltzeko zintei.

Jakina, gailuan ibiltzea ez zen hautazkoa presoentzat, zigorraren parte baizik. Iturrien arabera, presoekin makinan pasatzen zuten denbora ez zen finkoa, baina hamar orduko jardunaldi luzeen



Ezkerrean, Sir William Cubitt (1785-1861) ingeniari ingelesa. Alboan, hark asmatutako arrabola, presoak zigortzeko eta otzantzeko egina. Irudiaren oinean azaltzen da makina Cubitten asmakizuna dela eta Brixtongo espetxean abiarazi zutela. "Kartzelako diziiplina hobetzeko gomendatua" zegoela ere esaten da.



NATIONAL PORTRAIT GALLERY LONDON

berri eman izan du zenbaitek. Lansaio horietan bost kilometro egitera iristen omen ziren (eta ez paseo lasaian, eskailera iragotzen baizik!).

Presoak hamsterrak bailiran gorpilari bueltaka aritzea eraginkorra zen. Tokitik mugitu gabe, kondenatuak nekatu eta otzantzea lortzen zuen arrabolak. Baina berehala konturatu ziren, presoak punitzeaz gain, bazegoela beste probetxu bat ateratzea errota hari. Ura batetik bestera mugitzeko edo alea ehotzeko erabiltzen hasi ziren, esaterako.

Presoak esklabo erabiltzea, lanean jartzea eta haien jardunari etekina ateratzea aspaldiko kontua da, ez zuen Cubittek asmatu. Antzinaroan noriei eragitera edo galeretan arraunean aritzera behartzen zituzten, Erdi Aroan, katedralak eraikitzeko adibidez, poleei tiratu eta harriak jasotzera kondenatzen zituzten...

Eta orain, beste esklabotza mota batek bultzatzen ditu "kondenatuak" tramankulu horietan igotzera. Zigorra diruz ordaintzen dute, gainera. ■



Armadarik txikiena

Egun, munduko ejertzito ofizial txikiena Vatikanoko Guardia Suitzarra da: 100 kide. Baina aurrez izan dira armada txikiagoak, gerran parte hartu dutenak gainera. 1866an Liechtenstein Austriar-prusiar Gerran sartu zen Konfederazioaren aldean, eta 80 kideko gudarostea Garibaldi buru zuten italiarren aurka borrokatzera bidali zuten.

Ez ziren borroka zuzenean sartu eta, parte hartze labur eta lasaia amaitutakoan, baxerik gabe itzuli ziren. Kondairak dio bueltako bidean ofizial austriar batek haiekin bat egitea erabaki zuela, hau da, 80 joan zirela gerrara eta 81 itzuli. Handik bi urtera armada desegin zuten eta orduz geroztik printzerri txikia neutrala da. ■